

SESSION 2014

**CAPES
CONCOURS EXTERNE
ET CAFEP**

**Section : LANGUES RÉGIONALES
BASQUE**

COMPOSITION ET TRADUCTION

Durée : 5 heures

L'usage de tout ouvrage de référence, de tout dictionnaire et de tout matériel électronique (y compris la calculatrice) est rigoureusement interdit.

Dans le cas où un(e) candidat(e) repère ce qui lui semble être une erreur d'énoncé, il (elle) le signale très lisiblement sur sa copie, propose la correction et poursuit l'épreuve en conséquence.

De même, si cela vous conduit à formuler une ou plusieurs hypothèses, il vous est demandé de la (ou les) mentionner explicitement.

NB : La copie que vous rendrez ne devra, conformément au principe d'anonymat, comporter aucun signe distinctif, tel que nom, signature, origine, etc. Si le travail qui vous est demandé comporte notamment la rédaction d'un projet ou d'une note, vous devrez impérativement vous abstenir de signer ou de l'identifier.

Tournez la page S.V.P.

Composition et traduction

1. Itsasoaren eta untziaeren arteko dialektika azal ezazu nola agertzen den, horretarako idazte prozeduretan bereziki zarelarik oinarritzen eta Sladow-en pintura kontutan hartzen duzularik ere.
2. Nolako denboraren kurritzea(k) agertzen ote da/dira testuetan. Eta Sladow-en pinturak nola ilustra lezake/litzake (ala ez) denboraren kurritze berezi hori/horiek?
3. Ager itzazu bidaiaren *topos*-aren tratatze ezberdinak, pintura har dezakezularik lagungarri.

Document 1: Metsikorat (Jean Elissalde, « Zerbitzari », *Gure Herria*, 1927)

Metsikorat

Hamazazpi egunen bidea da hemendik Metsikorat: hamabortz egunen bidea itsasoan, bigena lurrean. Ez da Saint-Nazaire deitzen den portuaz kanpo bertzerik Frantzia guzian, Metsikorateko untxi bat sartzen denik. Han ginuen beraz gure untxia hartu, Uztaritzeko jaun notariaren semearekin. Bideko ez ginezaken lagun hoberik kausi. «Cuba» zen untxiaeren izena. Untxi ederra ehun eta berrogoi-ta sei metra luze, hogoi-ta bi metra zabal. Arras bidekaria bertzalde eta itsasoak guti higitzen duena. Ez da untxi hori Frantziako handienetarik, baina ez dugu uste hobeagorik hainitz badela.

Dena den, lehen aldia zuen untxi batean zangoa ematen ginuela. Huna zer aithortuko dautzuegun... denboraren buruan: mariñel batek, elheketan zerbeitez hasi eta, erran zaukularik itsaso-bethean nun-nahi badirela borts sei kilometra ondo eta noiz nahi hamabitarraino, halako bat bizkar hezurtean barna senditu ginuen. Ez da harritzeko: hamabi kilometra ondo... eta iherika guk ez jakin!

Laster ohartu ginen hargatik ez duela hainitz balio izitzea: ez dela lurrean baino irrisku gehiago holako untxiarekin itsasoan. Baina... goazen emeki eta ez gaiten itsaso zabalean, leihoretik urrundu gabe, sar.

Errearoaren hogoi-ta bata zen: goizeko zazpiak. Jada iguzkia zeruan gora. Hirur orro handi egin zituen untxiak, norbeitek nunbeit min handi bat egin balio bezala, eta emeki-emeki abiatu zen Amerikari buruz. Mundu bat agur eta agurka ari zen leihoretik. Baziren han-hemenka nigarrez ari zirenak ere. Senhar bat, anaia bat eta adixkide bat bera hola doakionari bihotzean zimiko handisko bat egitea, nor harri? Bai, gu ere orduantxe orhoitu ginen Eskual-Herriaz, eta gogorat ethorri zitzaizkun pertsulari famatu baten kantua:

Herrialde guzietan toki onak badira,

Bainan bihotzak dio; zoz Eskual-Herrira.

Eta gu atzerirat ginoazin, omen txarreko herri batetarat! Ezin ahantzizko eguna! Baina ohartu gabe, itzaliak ziren leihoretan agurka ari ziren jende maiteak, itzaliak itsas-hegiko etxe pollitak, itzaltzen ari jada urrunean mendiak. Eta bihotzean ilhundura pixka-pixka batekin, gure Uztaritzar lagunaren arintzeko, kantuz hasi ginen:

Ara nun diran mendi maiteak

Ara nun diran zelbaiak.

Basheri eder xuri-xuriak

Ithurri eta ibaiak.

Ilabete pare batentzat Amerikarat doanak kanta dezake hola: han zoazin gehienek kantuak sartuxeak zituzten!

Itsasoko bizia? Denak har, lurrekoa bezalatsu. Itsasoan doanak ongi jatea du gogoan, ongi edatea ere ba. Lo ongi egiten da. Eta bideari nihor ez da ohartzen. Zu geldi-geldia zaudelarik, untzia badoa gelditu gabe. Santander, Gijon, Coruña, hirur Espainiako portu eder, karriketan sekulako olio usainarekin, bi egunen buruko ikusiak gintuen. Portu batetik bertzerat, marloinak han gintuen, guzien jostagailu, ehunka ondotik. Bainan bat bertzearen ondotik hirugarren arratseko norapeit itzali ziren marloinak ere beren moko gorri xorrotxarekin...

Itsaso zabalean ginen, eta itsaso zabalean hamar egunentzat! Hamar egunez ez da gehiago begien aintzinean ura baizik; ur urdin zabal bat aitzinean, gibelean eta bi aldetarik. Noizetik noizerat untzi bat urrunean ikusten bada, zer mirakuilua! Oren bat edo biga, loriatua, hari beha eta beha han zaude, begiak bertzalderat itzulirik ere, berritz harat ekharriak!... Eta azkenean untzia ere emeki-emeki ttipitzen zautzu, laster hedoen artean gordetzeko, amets bat bezala... Eta orduan berritz beha zazu eskuin eta beha zazu ezker, ez duzu bethi eta bethi ur eremua baizik ikusten. Nihun xori bat, nihun untzi bat, nihun deusere ur urdina baizik.

Zer gogoeta egiteko lekua! Eta ez da gogoetarik egiten! Ez da orhoitzen untziak hantxet ondoa jotzen balu, zutaz egina litakela: zutaz nihor ez litakela gehiago mintzatzen ahal: untziarekin ezen, zuk ere ondoa jo zinezake, nun eta ondoratu gabe ez zaituen arrain handi tzar zenbeitek oso-osoa edo phuskatuz iresten. Horietaz nihor ez da segurki orhoitzen. Ez-eta behar! Itsasoaz begiak ase ditutzularik, lehen kausituarekin, zure bizian ikusi ez baduzu ere, aspaldiko adixkide batekin bezala hasiko zare elheketa. Erranen diozkatzu, zabal-zabala, zure sekretu minenak: harek ere ba bereak zuri. Erranen diozu norat eta zertarat zoazin: zenbat denborentzat: zertako utzi ditutzun zure herria eta zure herritarrak. Eta zu hola zure berrien adixkide berri horri ematen ari zarelarik, bertze batzu badire jokoan ari direnak. Bertze zenbeit zahar-haurtuak, jauzika, nihork trufatu gabe. Zenbeit bakhar, han eta hemen, jada itsasoari beha, arraineri goraintzika. Zer nahuzue! Oro ez dire bardin eginak eta itsasoko gaitzak ez du legerik. Uste gabean eta uste ez duena har dezake eta du hartzen. Jainkoari eskerrak hargatik behinere ez daukulakotz itsaso tzarrenak bihotza eta barnea itzuli. Hitz dautzuet, ikusiak ikusirik, ez duela guti balio...

Document 2: Partiada tristea (in *Bertso zahar eta berri zenbaten bilduma* [1798], P. Urkizuren edizioa, 1987)

1
Partitcean Ternuara,
Uncia prest da belara.
Berga haut dago arradan
Denbor-onaren paradan

2
Churi garbi ceru gaiña,
itsasoac eder maina:
Haice ona belaraco,
Denbor-ona partitceco

3
Untcitic artilleria,
Athean mandataria,
Enbarg-hadi, mariñela,
Untciak daguian bela.

4
Partitcen da mariñela,
Bihotcean triste dela;
Gomendatcen Jaincoari,
Adio, dio mainadari

5
Adios, aita, adios, ama,
Behar handiac narama;
Neure buraso çaharrac,
Çuen hasteco beharrac.

6
Adios, neure emastea,
Esposa maite gastea;
Tristeia dut partiada,
Seculacotz, behar bada

7
Alabaina, goan behar naiz
Munduan bicico banaiz,
Nik behar dut irabaci,
Neurequin mainada haci.

8
Bici beharrez bicia
Benturatcen dut gucia
Bici ustean hiltcera
Banoa hirrisatcera

9
Itsasoac nau bicitcen,
Harc berac nau ni icitcen,
Bici laburra emanen,
Guero berac eramanen.

10
Adi, neure haur chumeac,
Seme alaba maiteac;
Galtcen baduque aita,
Ama alarguna maita. [...]

13
Neure senhar maite ona,
Etchean behar guicono,
Seculacotz gal beldurrez,
Adi, darotçut nigarrez.

14
Jaunac diçula gracia
Salborik jende gucia
Arribatceco biciric
Biaian irabaciric

15
Mariñelen emasteac
Haiñitçac senhar gabeac,
Goizean dena senhardun,
Egun berean alargun [...]

18
Mariñelac bicia motz,
Guti sortcen çahartcecotz
Guehienac gastetican
Badoaci mundutican

19
Etchean beharrenean
Calte dadiquetenean,
Ordu han galtcen guiconac,
Maiñada, haz çaizte onac.

20
Mariñela partitu da
Seculacotz behar bada,
Haiñitz dohaz seculacotz
Hill berria ethortcecotz.

Document 3

Samuel Sladow, « Esmeraldazko itsaso»



Traduire:

Longtemps, je me suis couché de bonne heure. Parfois, à peine ma bougie éteinte, mes yeux se fermaient si vite que je n'avais pas le temps de me dire: "Je m'endors.". Et, une demi-heure après, la pensée qu'il était temps de chercher le sommeil m'éveillait; je voulais poser le volume que je croyais avoir encore dans les mains et souffler ma lumière; je n'avais pas cessé en dormant de faire des réflexions sur ce que je venais de lire, mais ces réflexions avaient pris un tour un peu particulier; il me semblait que j'étais moi-même ce dont parlait l'ouvrage: une église, un quatuor, la rivalité de François Ier et de Charles Quint. Cette croyance survivait pendant quelques secondes à mon réveil, elle ne choquait pas ma raison mais pesait comme des écailles sur mes yeux et les empêchait de se rendre compte que le bougeoir n'était plus allumé. Puis elle commençait à me devenir inintelligible, comme après la métempycose les idées d'une existence antérieure: le sujet du livre se détachait de moi, j'étais libre de m'y appliquer ou non; aussitôt je recouvrais la vue et j'étais bien étonné de trouver autour de moi une obscurité, douce et reposante pour mes yeux, mais peut-être plus encore pour mon esprit, à qui elle apparaissait comme une chose sans cause, incompréhensible, comme une chose vraiment obscure.

Marcel Proust, *Du côté de chez Swann*

Vous répondrez en français aux questions suivantes :

La traduction des propositions relatives, du français au basque, présente régulièrement quelques difficultés. Lesquelles? Quelles solutions peut-on proposer?

Justifiez vos choix concernant le champ lexical du "temps" dans les termes suivants, situés au début du texte de Marcel Proust: *longtemps, vite, après, parfois, à peine, temps, encore, je venais de lire.*